


# BERRIGARA

19. zenbakia

JARDUN Elkartea, Bergara

1996, ekainak 14



Toki Ederren ondoren, jaiak

## San Antonion

### MARKIEGI Autoak

Leizeaga, 1 (San Lorenzo Industria Poligonoa). ☎ 76 35 09 BERGARA.

- Autoaren konponketa orokorra.
- Txapa eta pintura.
- Mekanika.
- Pintaketa labe-kabina.
- IAT-rako prestaketa linea.
- Direktzio alienazioa.
- Neumatiko zehituz.





# GOGORATU

## 1996ko UDA IKASTAROAK


Ekainaren 27tik uztailaren 24ra  
5 ordu goizez

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN,  
ALFABETATZEN eta EGA

## MATRIKULALDIA

Ekainaren 10etik 21era  
Prezioa: 8.500 pzta (materiala barne)  
16 urtetik gorakoentzat

**BERGARAKO  
UDAL EUSKALTEGIA**  
Zabalotegi, 13 BERGARA  
Telefonoa eta faxa: 76 44 53



**Gogoratu ez dugula oporretan ixten  
eta zeure esanetara gaituzula.**

**Zugandik oso hurbil.**



ERROTALDE JAUREGIA  
48017 Bergara  
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

**Argitaratzailea:**

ERROTALDE JAUREGIA

**Zuzendaria:**

Agustín Azkarate

**Erredakzioa:**

Agustín Mendibil

Agustín Elkorobereibar

Agustín Larrañaga

**Maketazioa:**

Agustín Azkarate

**Publikizitatea:**

Agustín Azkarate

**Harpidetzak:**

Agustín Elortza

**Testuen zuzenketak:**

Agustín Plazaola

Agustín Laskurain

Agustín Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Agustín Elortza

Agustín Angel Elkorobereibar

Agustín Labaien

**Komikiak:**

Agustín Rodríguez

Agustín Ortega & Jon Alvarez

Agustín Ugaldé

Agustín Azkarate

**Sanaketa:**

Agustín Langorri taldea

**Tirada:**

Agustín 1000 ale.

**Imprimategia:**

Agustín Coop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Age gordailua:**

Agustín 50/91

**ISSN:**

Agustín 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain

erosten aldizkarian adierazitako

erabilien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako  
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek  
Guzuzkoako Foru Aldundiaren  
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko  
Jauriaritzaren Kultura  
Zabaleraren laguntza jaso du

## Z E B E R R I D A ?

## IÑAKI UGARTEBURU

## Kirol Zerbitzuko teknikaria

- Aurten ere Uda Kanpaina...

- Bai, aurtengoa 7. edizioa izango da eta kirol eskeintza zabala pres-tatu dugu: igeriketa, tenisa, patinajea, jazz dantza, arku tiraketa, eskalada, aerobika, piraguismoa, ur azpiko kirola, abentura kirola, prestakuntza fisikoa (nobedadea)... Bi txanda izango dira, lehenak ekainaren 24tik uztailaren 5era (izen-ematea 20an bukatuko da) eta bigarrena uztailaren 8tik 19ra (izen-ematea uztailaren 4a baino lehen).

- Non izango dira iharduerak?

- Abentura kirola eta piraguismoa izan ezik, besteak Bergaran egingo dira. Adin guztietakoentzako iharduerak egongo dira, nahiz eta eskeintza



zabalena 8 urtetik 14 urtera bitartekoentzat izan.

- Zenbat jendek parte hartu zuen iaz?

- 541 lagunek. %57a emakumeak ziren, %58a 16 urtetik beherakoak eta kirolei dagokienez, igeriketa izan zen arrakastatsuen (284 lagun) eta ondoren tenisa (52), abentura kirola eta aerobika (48na) eta dantza jazz (35 lagun).

**"Era guztietako kirol iharduerak egin ahal izango dira Uda Kanpainan"**

## I T U R R I O N E T I K

## San Martinetako ferian herri-afaria gertatzeko asmoa dute harakinek

Bedelkarreko harakinak San Martinetan zerbait antolatzekotan dabilta. Iaz odoloste dastaketa egin zuten San Martingo barazki, fruta eta loren ferian; eta aurten, horrekin batera, herri-afaria egin nahi dute.

Horretarako, herriko harakinak aste honetan Intxaurren egiten ari den Aste Gastronomikoan izatekoak dira, bertan txahala erre dutenekin harremanetan jartzeko. Bedelkarreko harakinek afaria San Martin egunaren aurretik antolatuko lukete eta 200 kiloko txahala eskeintzea da euren asmoa. Hala ere, afari hori antolatzeko jende ugari behar da eta herriko taldeen laguntza lortu nahi dute aurretik.

E S A N  
D U T E

"Idazterakoan gehienetan gustatzen zaizkidan gauzei buruz idazten dut. Agian gauza utopikoak, oraingo honetan preso guztiak kalera irtengo direla, gauzak betiko baketu direlako. Aurreko lanak naturarekin nahiko lotura dauka, eta hori islada nuen. Azkenean idazten ditudan gauza asko moralina daukate, nire moralina"

ROBERTO  
IZAGIRRE


Literatur  
lehiaketaren  
irabazlea  
EGIN

"Bere lanetik bizi behar duen baserriarrak ezin ditzake jasan inguru bat Zonalde Babestu deklaratzearen ondorenak, inguru bat ezin da horrela izendatu gizarte osoak asumitu eta egoki kalkulaturako dirurik ez bada. Babes dezagun lehenbizi bertakoen lana eta bizitza, beren iritzia entzun eta benetan aurrera eramanz"

## MAITE ARISTEGI

Abokatua  
EGIN





### UNA JAULA DE GRILLOS

Ostirala: 22:30.  
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.  
Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.  
Astelena: 19:30  
(Ikuslearen eguna).



### PROFESOR HOLLAND

Osteguna: 20:00  
(Zine-kluba).



▼▼ **Oihulari Klown** antzerki taldeak amaiera emango die azken hilabeteetan Pol-Polen eskeinitako kafe-teatro emanaldiei, asteazkenean (hilak 19) gaueko 10etatik aurrera. Oraingoan telediaro klown bat eta ipuinak eskeiniko dizkigute, txalaparta edo albokaz lagundutako emanaldian.

## Zinea

▼▼ **Mike Nichols** (*Se acabo el pastel*) zuzendariaren komedia honetan, **Robin Williams** (*Jumanji*) eta **Gene Hackman** (*Arde Missisipi*) aktore ezagunak dira protagonista nagusiak. *Val* gazteak (**Dan Futterman**) *Barbara*arekin (**Calista Flockhart**) ezkontzeko asmoa duela esango dio *Armand* bere aitari (**Williams**). Arazoak sortuko dira azken honen eta *Barbara*ren aitaren artean (**Gene Hackman**).

▼▼ **Richard Dreyfuss** aktorea aurtengo *oscarretan* izendatua izan zen filme honetan egindako lan bikainagatik. Ospe haundiko musika lan bat konposatzearekin amets egiten duen *Holland* maisuak, Portland-go institutu batean klaseak ematen jarraitzen du. Bere ikasleek zentzua emango diote *Hollanden* lanari...

## Deiak

▼ **Jardunek** OHoko 6. mailatik 8. mailara bitarteko ikasleentzat ekintzak antolatu ditu uztailen. Izen-ematea (2.000 pta.) eta argibideak Kartzelan, 76 36 61 telefonon.

▼ **Erakusketa.** *Bergara Hiria* argazki lehiaketako lanik onenak Kultur Etxean ikusgai ekainaren 22ra arte. Aste barruan 6etatik 8etara eta astebukaeran 12etatik ordu batera eta 6etatik 8etara.

▼ **Manu Muniategi**ren margo erakusketa Gasteizko CM2 erakusketa aretoan uztailaren 5era arte.

▼ **Aita Menni** ospitaleko arte erakusketan Juan Balentziagaren margo eta eskulturak, eta Arantzazu Aranzabalen zeramika lanak ikus daitezke San Juanak bitartean.

## Ogia

▼ **Igandea 16:** Mizpildi.

## FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 14:** Puy.
- ▼ **Larunbata 15:** Guallar.
- ▼ **Igandea 16:** Guallar/Corcuera.
- ▼ **Astelena 17:** Estella/Irizar.
- ▼ **Astearte 18:** Mozos/Amezua.
- ▼ **Asteazkena 19:** Camacho/Ruiz.
- ▼ **Osteguna 20:** Puy/Morales.

## Masterreka 24

**Nepal, India eta Hego Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA



## Deco-Textil

## ZANGITU

**Etxerako lantzeria**  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.

Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69



# San Antonioko jaiak

## Auzokideak jaiak berreskuratu nahian

**Garai batean San Antonioko jaiak izan zuten ospea berreskuratu nahian jo eta ke lanean ibili da azken urte haue-tan auzoko talde bat. Marta Gonzalez eta Sonia Cachafeiro Jai Batzordekoekin egon gara.**

**- Noiz hasi ziren ospatzen San Antonioko jaiak?**

- Orain dela urte mor-do bat. Pentsa, San Antonioko txirindulari laster-ketaren 60. edizioa jokatu zen larunbatean... Oso jai arrakastatsuak izaten ziren baina piskanaka-piskanaka galduz joan ziren eta orain hiru urte talde bat bildu ginen jaiak erre-kuperatzeko ideiarekin. Pena ematen zigun jaiak galtzeak, are eta gehiago jendeak hemengo jaiak onenak zirela esaten zue-nean.

**- Zenbat lagun ibili zarete jaiak antolatzen?**

- Sei lagun gabiltza. Orain hiru bat hilabete hasi ginen ekitaldiak prestatzen eta nahiko programa zabala osatu dugu. Hala ere, 1.155.000 peze-tako aurrekontua dauka-gu eta arazoak ditugu di-rua biltzeko. Orain arte zozketak antolatu ditugu



Marta Gonzalez eta Sonia Cachafeiro Jai Batzordeko kideak.

eta horrez gain publizita-tea, Udala edo auzokoen laguntza jaso dugu. Bestalde, jaietan salduko di-ren painuelu eta bazkari herrikoiarekin ea diru pis-kat jasotzen dugun... Hala ere, Udalaren jarrerarekin ez gaude oso pozik.

**- Zer gertatu da?**

- Batetik oso diru gutxi eman digu jaiak antola-tzeko, 115.000 pezeta. Bestalde, jaietako kami-oiaren ordeztu tabladua es-katu genuen, kamioia ez

baita ondo sartzen jarri duten lekuan, baina ez di-gute jarri oholtzarik.

**- Ekitaldi nagusia?**

- Tanborradak eta Pa-co Formoso "El general" eta bere Mariachien emanaldia. Bi tanborrada izango dira, nagusia la-runbatean eta gaztetxoe-na igandean. Bakoitzean 50 lagun inguruk hartuko dute parte eta nagusien tanborradan aurten egin-dako jantzi berriak estreinatuko ditugu.

**"Nagusien tanborradan aurten egindako jantzi berriak estreinatuko dira"**

### OSTIRALA

**19:00:** Kukañak eta buruhaundiak.

**23:00:** Dantzaldia Skorpio orkestaren eskutik.

### LARUNBATA

**12:00:** Herri poteoa trikitilariak alaituta.

**16:00:** XII. Mus txapelketa azkarra.

**17:00:** Kukañak eta buruhaundiak. Ondoren txokolatada haurrentzat.

**22:00:** San Antonioko tanborrada, Musika Eskolako bandak lagunduta.

**23:00:** Dantzaldia Passarella taldeak eta Paco Formoso "El General" eta bere Mariachiek alaituta.



### IGANDEA

**09:00:** Diana eta txokolate beroa goizaleentzat.

**10:30:** Herri meza.

**12:30:** San Antonioko II. Plater tiraketa txapelketa. Hiru Biden (Gorlan).

**12:30:** Herri poteoa.

**15:00:** Herri bazkaria.

**17:00:** Voces Navarras.

**19:00:** Haurren tanborrada.

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

P  
A  
N  
A  
D  
E  
R  
O  
K  
U  
A

**Sugoi**

**ERLOJUAK, ARTIKULO  
ELEKTRONIKOAK,  
KALKULADORAK...**

Irizar pasealekua, 2 behea

☎ 76 59 54 BERGARA



## ELA eta LABen balorazioa

INEMi dagozkion lanak burutzeko Mankomunitateak kontratatu dituen hiru administrari laguntzaileen inguruan:

1. LAB eta ELA sindikatuek beti defenditu dute Euskal Herriak, lan harremanetarako marko propioa eta INEM euskaldun bat behar dituela.

2. Arrasateko Udalak INEMi hainbat lokal eskaini dizkiola. INEMen obligazioa dela Arrasaten kokatzea eta Udalak gestio desberdinak egitea hau horrela izan dadin.

3. INEM bera ari dela langabeziaren portzentaia jeitsi arazten, langabetuak Eibarrera joatera behartuta daude.

4. INEMen aldetiko utzikeria nabarmen honek Arrasateko ETT delakoak laguntzen ditu, Arrasateko langabetuak bulego pribatu hauetan izena ematearekin konformatzen baitira.

5. Mankomunitateak, hiru administrari laguntzaile kontratatuzeko azaldu duen interesa, INEMen inkompetentzia eta funtzioekiko sarkoikeria dela uste dugu.

Bukatzeke, INEMi deialdi bat juzatzen diogu, lehenbailehen bere bulegoak Arrasaten koka ditzan eta berari dagozkion funtzio eta arduren kargu egin dadin.

ARRASATEKO ELA ETA LAB

## San Martzialeko mahaia

Joan zen urtean egun berezi horretarako bi mahai alokatzeko asmoa geneukan, baina badirudi berandu samar joan ginela eta bat baino ez genuen lortu. Nahiko estu ibili ginen jateko orduan, baina umore ezin hobean primerako bazkaria izan genuen.

Eta aurten, gertatutakoa gogoratu, mahaia alokatzeko epea zabaltzen den egun berean joatea erabaki dugu, baina horra hor gure ustekabea! Goizean bertan bukatu dira: aurten estu-estu ez, aurten lurrean jan behar... Baina hori bai datorren urtean gaupasa egingo dugu ate ondoan epea zabaldu baino lehen.

Hau horrela izanda, pare bat galdera luzatu nahi ditugu:

1. Hain zaila al da prebisioak (goitik jota, noski) egitea?

2. Ez litzateke hobe izango lehenengo jendea apuntatzea eta datu horiek, zenbat mahai behar diren jakinda, enpresei alokatzea? Ala arazoa toki falta da?

M. GARITANO ETA KOADRILAKOAK

## Eta Bergarako gaztetxea zer?

Hemen dago asteazken bat gehiago Kultur Etxeko ganbaran Gazte Asanblada bere asanblea egin nahian. Azkenaldi honetan betiko lau "pelauak".

Gaztetxe bat lortzeko elkartzen gara, guk uste genuen hau Bergarako gazteri osoari interesatzen zitzaion asuntua zela baina argi eta garbi erakutsi dute Bergarako gazteek gaztetxerik ez dutela nahi.

Herri honetako gazteok, jadanik jakin beharko genuke gaztetxea ez digula inork eskura emango, eta hau lortzeko gogor borrokatu behar dugula, ez bakarrik "apoyo moral" a emanez, edo Gazte Asanbladako metxero, pegata edo kamisetak eramanez, lau "pelau"ekin harremanetan jarri eta zerbait egin dezakegu denok batera.

Momentu honetan Gazte Asanbladan egoera larri batean murgildurik gauden jende gutxi, ideia gutxi...

Horrela jarraitzen baduzu Victoriano-ren ametsa burutuko duzu, etorkizuna garen gazteok lurperatuz.

Bergarako Gazte Asanblada asteazkenero biltzen da arratsaldeko 7:30etan Kultur Etxean.

BERGARAKO GAZTE ASANBLADA

## Tiira biraka GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ





**Jubilatuen irteerak**

Jubilatuek asteazkenean, ekainak 19, Biasterira, Errioxara irteera egingo dute, Haron bazkalduz. Bestalde, ostegunean, Gorlara irteera iragarri da eta Legazpi, Irun eta Errenteriko jubilatuekin batera Alzasun egingo da bazkaria. Izenemateak 1.500 pezeta balio du. Argibideak Jubilatuen Egoitzan edo 76 21 40 telefonoan jaso daitezke.

**Udako ikastaroak Udal Euskaltegian**

Bergarako Udal Euskaltegiak 16 urtetik gorakoentzat udako ikastaroak antolatu ditu ekainaren 27tik uztailaren 24ra bitartean. Matrikula epea ekainaren 21era arte izango da zabalik. Prezioa 8.500 pezetakoa izango da. Interesatuek Udal Euskaltegian, Zabalotegin, edo 76 44 53 telefonoan jaso ditzakete argibideak.



Galeperren haztegi langile gehienak kalean geratu dira.

**Bergarako galeperren haztegi enpresa Murgiara eraman dute**

Bergarako *Criadero Vascongado de Codornices* (CVC) enpresa itxi eta Murgian (Araba) berria zabaldu dute enpresako ugazabek. Antza denez, San Juan auzoko lantegiak ez zituen beharrezko segurtasun eta osasun neurriak betetzen eta hori dela eta itxi egin behar izan dute, egin beharreko erreforma garestiegia ei zelako. Horrez gain, langileek adierazi dutenez, Arabako lan konbenioak ere zeresana izan du lantegia hara eramateko.

Guztira, 40 langile inguru ari ziren lanean ga-

leperren haztegi enpresan eta gehienak kalean geratu dira. Gaur, ostirala, kaleratutako langileak biltzekoak ziren zer egin dezaketen aztertze.

**Enpresaren gainbehera**

San Juango galeperren haztegiak bere sorreratik garai ezberdinak ezagutu ditu. Orain dela 15 bat urte liderra izan zen bere sektorean, baina azken urteotan krisialdian murgilduta izan da, langile fijoek lantegia utzi behar izan zutelarik.

Orditik ez du burua altxatu eta arazo ugari ezagutu ditu. Langileek euren lan baldintzen egoera salatu izan dute behin baino gehiagotan eta denbora batez lantegia itxita egon da ez omen zitu elako beharrezko osasun neurriak betetzen. Azkenean, enpresaren trasladua etorri da.

BERRIGARAK behin eta berri lantegiko arduradunekin harremanetan jartzeko ahaleginak egin ditu aste honetan baina ezin izan dugu euren partetik inolako adierazpenik jaso ahal izan.

**HILDAKOAK**

**Maria Natividad Muniozguren Bernedo**  
Ekainak 10, 71 urte

**JAIOTAKOAK**

**Mikel Eguren Alonso**  
Ekainak 5  
**Iker Ruiz de Larramendi Lete**  
Ekainak 6

**OILAGORRA**  
**TABERNA**

Barrenkale, 21 BERGARA



☎ 76 20 61

**MAHER**

**Biltegiak L.E.**

**Oihal etxea**

**Bidekurutzeta, 29**

☎ 76 22 90 - 76 26 75



### Musika Eskolako ikasleen emanaldiak

Amaitu berri den ikasturteari bukaera emateko, Musika Eskolako ikasleek hainbat emanaldi eskeiniko dituzte datozen egunetan. Bihar larunbata, ordubatean, kantu ikasleen emanaldia izango da Zabalotegin. Astelehenean, berriz, akordeoi emanaldia izango da, asteartean piano ikasleena eta asteazkenean, hilak 19, beste hainbat instrumenturekin kontzertua emango dute. Azken hiru emanaldi hauek ere Zabalotegiko aretoan izango dira, arratsaldeko 7etan.

### Kanpoko igerilekuak zabalik

Gaur, ostirala, Agorrosingo kanpoko igerilekuak zabaldu eta barrukoak ixtekoak ziren. Kanpoko igerilekuak, iraila bitartean, goizeko 10etatik gaueko 9ak arte izango dira zabalik.

### Toki-Ederreko jaietako zozketa

Toki-Ederreko jaietan larunbatean egindako zozketan 10.777 zenbakia saritua izan da. Boletoaren jabeak Zumelaga jatetxean bi lagunentzat afaria jasoko du. Saritutako boletoa agertuko ez balitz, ordeko zenbakia 440a izango litzateke.

### Matrikula zabalik Musika Eskolan

Datorren ikasturterako aurre matrikula epea uztailearen 24ra arte egongo da zabalik Musika Eskolan. Interesatuak 76 57 80 telefonoan jaso ditzakete argibideak.



Zuribeltzean Andres Indurain irundarraren "Juego de niños" argazkiak irabazi du.

## Gaurtik, Bergara Hiria argazki lehiaketako lanak ikusgai

### *Benito Canterorentzat koloretako argazki onenaren saria*

Gaur, ostirala, "Bergara Hiria" Argazki Lehiaketako erakusketa zabalduko da Kultur Etxean. Aurtengo lehiaketan 40 argazkilarik hartu dute parte, guztira 159 argazki (89 koloretan eta 70 zuribeltzean) jaso direlarik. Zuribeltzean Andres Indurain irundarra izan da irabazlea "Juego de niños" argazkiarekin, bigarren saria Benito Cantero bergararrak eskuratu du ("Naiara") eta hirugarren Felipe Loiola eibartarra sailkatu da ("Ekix III"). Herriko onena, berriz, Juan Tabares izan da ("Urederra"). Koloretan, bestalde, Benito Canterok irabazi du ("Urbasa II"), Migel Anjel Otxoa de Alda legazpiarra bigarren geratu da ("Erreka") eta hirugarren Andres Indurain ("Paisaje"). Herriko onenaren saria Agustin Gurrutxagarentzat izan

da, "Dantzan" izenburuko argazki-gatik. Kategoria bakoitzeko lehen hiruak 25.000, 20.000 eta 15.000 pezeta gehi Tere Guenetxearen trofeo bana jasoko dute. Herriko onenei, berriz, 10.000 pezeta eta trofeoa emanango zaie. Sari banaketa ekainaren 22an egingo da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

Pedro Cruz nazioarteko argazki irakasle donostiarrak, Fermin Etxeberria zarauztarrak eta Javier Ruiz de Larrinaga azpeitiarrak osatutako epaimahaiak aurkeztutako lanen kalitatea goraipatu du.

Antolatzaileak, era berean, pozik azaldu dira aurten lortutako partaidetzarekin. Lanik onenak ikusgai egongo dira Kultur Etxean datorren igandera arte, ekainak 23.

B O L U N

**GANTXEGI** mertzeria

LENTZERIA • BAINU JANTZIETAN AUKERA ZABALA

Bolu, 28 ☎ 76 00 79

**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi ☎ 76 15 09



# Fagorrek San Juanen dituen lursailak Udalarari emango dizkio

*Udalak 16 milioi pezeta ordainduko dizkio Fagorri*

Joan zen asteko Plenoan Fagorren eta Udalaren arteko hitzarmena onartu zen alderdi guztien oniritziarekin. Hitzarmen horren arabera, Fagorrek San Juanen duen 8.580 metro karratuko lursaila emango dio Udalarari eta horren truke 16 milioi pezeta inguru ordainduko dizkio Udalak Fagorri. Bere garaian Fagorrek San Juanen eraikitako ontzi garbigailu plantarengatik, lursailen %15a Udalarari emateko hitzarmena sinatu zuen Fagorrek. Orain dela gutxi onartutako arau subsidiarioetan inguru hori lur industrial bezala kalifikatuta dago.

Udalak San Juanen iharduera industrialak bultzatzeko asmoa dauka, eta, hori dela eta, Udaleko ordezkariak hasi dira hor jar daitezke-

en enpresen arduradunekin negoziazioetan. Aipatutako lursailaren erdia urbanizatzeko asmoa dago eta gaur, arratsaldeko betan egitekoa zen Plenoaren lehendabiziko puntuan, 4.320 metro karratuko lur zatiaren salmentarako baldintza pleguen onarpena aztertzea zen. Victoriano Gallastegi alkatearen hitzetan, *"nabiz eta San Juanen bi enpresa kokatzeko lursaila egon, oraingoz bakarra joango da eta aurrerago eskaeraren bat izanez gero beste zatia lehiaketa publiko-ara aterako genuke"*.

Bestalde, gaurko Plenoan, Kiroldegiko tabernaren emakida eta Kiroldegiko instalazioen garbiketa adjudikatzeko lehiaketaren baldintza plegua ere aztertzea zen.



## Presoen alde gose greban Donostian

Euskal presoen giza eskubideen aldeko gose greba txandetan parte hartu dute Garbiñe Ibabe, Aitor Aranzabal, Haser Polvorosa eta Etor Larrañaga bergararrek (argazkian ezkerretik eskumara).

Joan zen abenduaren 18tik 375 lagun inguru izan dira Donostiako Artzai Oneko elizan egindako 25 gose greba txandetan. Txanda bakoitzeko astebeteko baraualdiak euskal presoen Euskal Herriratzea du helburu. Era berean, zigorraren 3/4enak beteta dauzkaten preso guztiak (tartean "Peito", Osa, Ibabe eta Etxaniz bergararrak) eta gaisotasun sendaezinak dituztenak kaleratzea eskatzen du.

## San Martzialerako mahairik ez


Udalak San Martzial egunerako alokatzen dituen mahaiak astelehenean agortu ziren. Kultur Zerbitzuak jakinarazi duenez, ez da mahai gehiago ekarriko.

## San Martinetako tanborrada

San Martinetako tanborradan parte hartu nahi duten 8 urtetik 12 urtera bitarteko gaztetxoek euren ikastetxean eman dezakete izena. Entsaiuak irailaren 4an hasiko dira.



Fagorreko ontzigarbigailu planta biltegi modura erabiltzen da orain. ARTXIBOA.



**LIZAR**  
**ALTZARIAK**

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53



**GAZTELU**  
**BURDINAKI DENDA**

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



# Tavexen mundu urdina


## Bergarako ehungintzaren historia liburu batean

**"El mundo azul de Tavex: 150 años tejiendo la historia, 1846-1996" liburuak aurkeztu zen ostegunean Udaletxeko Pleno Aretoan.**

Aurkezpen ekitaldian Jose Eduardo Perallon, liburuaren egilea, Enrique Garran, Tavex-eko presidentea, Roman Sudupe Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Gillermo Echenique, Ekonomia eta Turismo diputatua, Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea eta Montse Garate, historia katedraduna izan ziren. Tavex eta Algodonera ELA eta LABeko langileek, bestalde, Bergarako lantegian inbertitzeko eskatzeko enkartelada egin zuten udaletxe aurrean.

Algodonera eta Tavex-ek, 150. urteurrena ospatzeko argitaratu duten liburuan, 1846. urtetik gaur egun arte Bergarako ehungintza enpresa nagusiak izan duen bilakaeraren berri ematen da. Tes-tuen egilea Jose Eduardo Perallon izan da eta ikerketa historikoaz Jose Luis Lopez arduratu da.

150 urteko ibilbidea lau zatitan banatu dute liburuaren egileek. Lehenengoan, 1846. urtetik 1901.era doana, Jose Julian Blanc-ek, enpresaren sortzaileak, egin zuen lana azpimarratzen da. Bigarren zatian, 1901.etik 1936.era, enpresak Sozietate Anonimo bihurtzeko eman zituen urratsak kontatzen dira. Hirugarrenean, 1936-1957, autarkia



Tavex-en historiari buruzko liburuaren aurkezpena egin zen ostegunean.

garaian enpresak izan zuen hazkundearen berri ematen da eta laugarren zatian, azkenik, 1957-1995, tela bakeroei esker Tavex Europako liderra izatera heldu dela kontatzen da.

### 300 laguneko enpresa

Jose Julian Blanc-ek, Huescako pirinioetatik Bergarara bizitzera etortakoak, Silva eta Frois bationarrekin batera, Bergaran telak eta algodoi estanpatuak egiteko enpresa sortu zuen 1846. urtean. Energia hidraulikoaren eta baporearen bidez, Bengalatik inportatutako "indigoa" erabiltzen zuten oihala urdin kolorez tintatzeko. 300 langileko enpresak hainbat sari irabazi zituen nazioarte mailan, bere produktuen kalitateari esker.

### Bilboko kapitala

Blanc hil zenean bere

emazteak hartu zuen enpresaren ardura. Mende hasieran, ordea, enpresa Sozietate Anonimo bihurtu zen eta Bilboko kapitala sartu zen. Mende honetako hasierako urteetan eguneko lanaldia 10 ordutara murriztea lortu zuen langileriak. Bitartean, hain ezaguna den Bergarako urdinean espezializatu zen Tavex eta Bergaran beste hainbat ehungintza enpresa sortu ziren.

### Kakia eta Autarkia

Gerra Zibilean, Francoren tropak Bergaran sartu zirenean, ohiko azularen ordeztu soldaduen uniformeentzako kakia egiten hasi zen. Gerra ostean, Autarkia garaian, urte oparoak ezagutu zituen eta produkzioa %40an gehitzeaz batera, irabaziak ere haundiak izan ziren. Langileentzako etxeak egin ziren eta

kultur eta gizarte iharduerarako laguntza ugari eman ziren.

### Denim: tela bakeroa

1970ko hamarkadan "Tintes y acabados de Vergara S.A.", telak tintatzeko instalazio modernoak sortu zuen Narvaiza eta Lasagabasterrekin batera. Bestalde, "denim" (tela bakeroa) produzitzeko makinaria bereziak jarri zituen martxan.

Azken urte hauetan, Bergarako urdinaz egindako lanerako mahoizko telak pixkanaka-pixkanaka indarra galdu du eta gaur egun tela bakeroa da Tavexen produktu nagusia. 1975ean Levi's Strauss praka bakeroen multinazional ospetsua Estatu Espainolean ezarri zenean Tavex aukeratu zuen tela hornitzaile bezala.

80ko hamarkadan krisian murgilduta egon zen enpresa. Krisiari aurre egiteko, kanpoko kapitala sartu zen.

Azken urte hauetan, Holding indartsua bilakatu da San Antonioko Algodonera S.A. eta Valentzian eta Marruecosen lantegi berriak zabaldu ditu. Berriena, Marruecosoko Settavex lantegia da. TALDE S.A., hainbat akzionista pribatu eta Westdeutsche Landesbank AG banku alemandarra dira gaur egun Tavex taldearen akzionista nagusiak. Urtean 47 milioi "denim" metro produzitzen ditu.



## Osasuna

### Azaleko minbizia

#### - Noiz agertzen da azaleko minbizia?

- Hasteko, azaleko minbizi mota asko daudela esan behar da. Orokorrenak hiru dira: basalioma (carcinoma basozelularra), carcinoma espinozelularra eta melanoma deiturikoa. Gehien ematen dena basalioma da baina melanoma (arriksutsuena) azkenaldian gehien hazten ari den tumorea da, emakumeetan ematen den biriketako minbiziaren atzetik. Minbiziak 30 urtetik aurrera azaldu daiteke baina normalean 40 urtetik gorako pertsonetan agertzen da. Bestalde, horrela jarraituz gero 2000. urtean biztanleriaren %1ak azaleko minbizi izango du, batez ere eguzkia hartu, solariumen erabilera edo ozono geruzaren hausteagatik.

#### - Horiek dira minbizi agertzearen arrazoiak?

- Minbizi gehienetan ez da gaisotasunaren agerpenaren arrazoirik jakiten baina hauetan bai. Goian aipatutako hiru kasuetan arrazoietakoa bat erradiazio ultravioletak

jasotzea izaten da, batez ere ile horia eta begi eta azal argietako jendea baldin bada. Eta melanomari dagokionez, orinak edo lunarrak dituen jendeak eguzkia hartzeak, eguzkia intentsiboki eta etenka hartzeak edo haurtzaroan eguzkiak eragindako erreduzak izateak eragina izaten dute. Eta familian kasu gehiago eman badira, aukera gehiago dago melanoma izateko.




**CRISTINA GARCIAANDIA**  
(Dermatologoa)

#### - Zein da jarraitu beharreko tratamendua?

- Kasu gehienetan, eta denboraz hartuta, operatu beharra dago tumorea kentzeko. Baina gaisoaren adinak eta tumorearen neurriak ere zeresana izaten dute. Operatzerik ez badago, erradioterapia ematea nahikoa izaten da

### "Eguzkia, goizean lehen orduan edo arratsaldean 6-7ak aldera hartzea komeni da"



Tumorea kentzeko, gehienetan, operatu beharra dago.

askotan.

#### - Eta horretara heldu aurretik, minbiziari aurre hartzeko zer egin daiteke?

- Prebentzioa oso erretza dela azpimarratuko nuke. Txikitari umeak kremak (15 protekzioetik gorakoak) erabiltzen ohi behar dira eta, horrez gain, ez da oso komenigarria eguerdian eguzkia hartzea. Hobe da goizean lehen orduan edo arratsaldean (6-7ak aldera) egotea eguzkitan. Dena den ordubete eguzkitan egotearekin nahikoa dela esango nuke.

#### - Orinak edo aurpegiaren mantxak izateak nolako eragina dauka?

- Orin bat txarra den ikusteko amerikarrek asmatutako ABCD metodoa jarraitu behar da. Orina asimetrikoa (A) bada, bazterretan (B) irregularitasunak baditu, kolore (C) tonu ezberdinak eta 5 mm. baino diametro (D) haundiagoa baldin badauka onena medikurengana jotzea izango da.

Bestalde, aurpegiko mantxak eguzkiaren eraginez edo faktore hormonalengatik (batez ere haurdun egon edo pildora antisorgailua hartzen duten emakumeetan) agertzen dira. Horretarako protekzio haundiko kremak eta substantzia despigmentagarriak hartzea izaten da onena.

**BEHEKO  
TABERNA**

Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**IKUSBI**

ALKANDORAK,  
JERTSEAK, BAKEROAK  
ETA OSAGARRIAK

Irala, 5 ☎ 76 53 09

**MUJIKA**

Jantxidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



# Euskara merkataritzara

## Herriko dendariak euskara ikasten



Merkataritza ikastaroan hiru talde ibili dira eta euskalduntzen bat.

**Urtarrilean hasi ziren merkatarientzako euskara ikastaroak datorren astean bukatuko dira. Merkataritzan euskararen erabilera bultzatzea helburu duen eta Siadeco enpresak koordinatu duen programa baten barruan antolatu dira ikastaroak. Udaleko Euskara Zerbitzuak -egitasmoaren bultzatzailea- zein parte hartu duten merkatariek, balorazio positiboa egin dute lehen urrats honi buruz.**

**S**iadecok koordinatzen duen "Euskara merkatal mundura" kanpaina 94an hasi zen sei udalerritan; 95eko azaroan beste lau herri gehitu ziren, tartean Bergara. Siadecoren arabera, egitasmoaren helbururik garrantzitsuenak hiru izan dira: bititza sozialean ho-

rren garrantzitsuak diren establezimendu komertzialeetan -taberna, denda, jatetxe, zerbitzu, eta abarretan- euskararen presentzia bultzatzea, ahoz nahiz idatziz; enplegatu- en euskara maila hobetzea; eta barne edota kanpo harremanetan euskararen erabilpena susta-

ESKUEN BIDEZKO  
SENDAGILEA

Reiki maisua - Naturista -

Era guztietako gaisotasunen tratamendua:  
gaisotasun kronikoak, nerbioetakoak,  
emozionalak, degeneratiboak...

KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66

OXIRONDO mediku kontsultategia

Gogorarazi nahi diegu **Lagun Aro**, **Previa** eta **Capisa**ko aseguratuei helbide berri honetara eraman dugula mediku kontsulta: **Boni Laskurain, 2 behe** ☎ 76 20 50



ztea eta euskarazko harreman-sarea sortzea.

Helburua aurrera eramateko merkatariek Udalaren laguntza izan dute. Lehenengo fasean merkatariei buruzko informazioa eta datuak bildu ziren, eta 2. fasean Udalak merkatariei eskaintzak aurkeztu zizkien, hala nola, establezimenduetan erabiltzen diren testu eta kartelen itzulpena doan, "merkealdia" txartela, eta ikastaroak: batetik, euskalduntze ikastaroa, bestetik, euskaldun zaharrentzako merkataritza ikastaroa.

### Ikastaro bereziak

Merkatari guztiei eskaini zitzaizen ikastarotetan, euskara eskoletan, parte hartzeko aukera eta berrogei ibili dira. Ez dira ohizko eskolak izan: ordu egoki eta erritmo berezietan eman dira. Astean behin ordu bi t'erdietatik lauretara eman dituzte, lan orduak gal ez zezaten. Hala ere, irakasleek adierazi digutenez, badi-rudi eurentzat esfortzua izan dela. "Sarritan bazkaltzeke ere etorri dira. Kontutan hartu behar da merkatariek denda itxita duten unea beste zeregin batzuetarako aprobetxatzen dutela".

### Motibazioa eta giroa

Parte hartu duten merkatariek borondatez joan

dira, eta hori ezagun izan da. "Guk euskaltegian beste eskola batzuk ematen ditugu, eta alde handia igeri dugu. Merkataritzakoak borondatez etorri dira, eta askoz motibazio hobea zuten, giroan ere antzeman da..."

Merkatariek, euskara mailaren arabera, AEK-n edo Udal euskaltegian ibili dira. AEK-ko irakaslea Kristina Markina izan da, Udal Euskaltegikoa, berriz, Miriam Garate. Irakasleek adierazi digutenez, hilean behin elkartu dira ikastaroak nola ziho-

azen koordinatzeko; bestela, bakoitzak bere alde-tik prestatu ditu eskolak. "Izan ere, bakoitzak eman beharrekoa oso desberdina baitzen".

### AEK-n euskalduntzen

AEK-n euskaraz gutxi edo ezer ez zekitenen talde bat aritu da. 90 orduko ikastaroa izan dutenez, astean hiru egunetan izan dute klasea. Kristinak esan digunez, klaseetan bezero-dendari harremana landu dute, eta horretarako materiala prestatu

egin behar izan dute: "eredutzat Siadecok merkataritza talde batentzako egindako programaketa bat erabili dugu. Astero denda batean gerta daitkeen moduko elkarriketa bat oinarri hartu, eta elkarriketaren bidez arlo desberdinak landu ditugu: galderak nola egin, hiztegia ikasi, prezioak nola esan..."

Euskalduntze taldekoek bergarako ahozko euskara landu dute. "Batua erabili beharrean, bergarako euskaraz egin dugu berba klaseetan."

## "Aurtengoa hasiera besterik ez da izan, datorren urtean jarraipena izango du. Urtez urteko programa egin nahi da" ESTEPAN PLAZAOLA



Ikastaroez gain, merkatariek elkar ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera izan dute.

KINU ARGAZKIDENDA



# ETXEBERRIA

## ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA



**Merkataritza ikastaroak**




**M. NIEVES GARITANO**

**Zergatik hasi ikastaroan?**

Mintzapraktika egiteko. Dendan prezioa edo txikikeriaren bat esatera mugatzen zara; ez dago elkarrizketarik. Euskaraz ez dut erraztasunik, ez dut berba egiten, eta praktikatzeko hasi nintzen.

**Ikastaroak lagundu dizu?**

Orain beste jarrera bat dut, eta euskaraz egiten dut. Jendeak ez zekien euskaraz nekienik ere. Taloiak euskaraz egiten ditut, ageriko elementuak euskaraz ere baditut, asteko eskaintzen zerrendak lehen gaztelaraz nituen, orain euskaraz ere jartzen ditut.



**JABIER MUJIKA**

**Zergatik hasi zinen ikastaroan?**

Ni gerra aurreko ikastolan ibili nintzen, baina 12 urterekin ikasitakoa atzeratuta geratuta zegoela eta ikasi beharra nuela ikusten nuen.

Euskaraz asko aldatu dela konturatu naiz -batez ere, ortografian- eta gazteek guk baino gehiago dakitela.

**Gauza berririk ikasi duzu?**

Nik lehen ikastolan ikasi bezala esaten nituen zenbakiak, frantsesez bezala: birhamar, lauhamar...

Ikastaroan orain nola esaten diren ikasi dut.

**Jarraituko duzu?**

Astean behin baino gehiago eginez gero zaila iruditzen zait.

**Euskalduntze ikastaroak**



**SEBAS IMAZ**

**Zergatik hasi ikastaroan?**

Euskaraz gehiago berba egin eta ulertu ahal izateko. Zerbait ulertzen nuen, baina gehiago ikasi beharra sentitzen nuen. Tratu normala, justua egiteko gauza naiz euskaraz, baina ez gehiago: prezioa, kantitate...

**Dendan jendeak orain euskaraz gehiago egiten duzu?**

Batzuk ikastaroan nabilela jakin dutenean gogorrago hartu naute, eta lehen baino gehiago egiten didate.

**Erabilitako metodoa egokia izan da?**

Oso praktikoa da, entzumen asko landu dugu, eta ez digu esfortzurik eskatu.



**MAITE GARCIA**

**Zergatik hasi zinen ikastaroan?**

Ulertzeko. Lehen ibilita nago euskara ikasten, baina batua ikasi nuen, eta Bergarako hizkera oso desberdina da. Niri gehiago gustatzen zait Bergarakoa, jatorragoa da, batua serioagoa.

**Ikastaroak zertan lagundu dizu?**

Umearekin hitzegitean erraztasun gehiago dut. Dendan euskaraz elkarrizketa luzea bada ez dut euskaraz hitzegiten, konplikatuegia egiten zait.

**Datorren urtean jarraituko duzu?**

Gurasoentzako ikastaroa antolatzen bada hara joango naiz, dendarako ere balioko dit eta.

*Klasean batua ikasi eta dendarara joandakoan ezer ez ulertzea baino hobe da ulertuko dutena ikastea, beraz, erabiliko duten bizkera erakutsi dugu. Gainera ez dugu ezer idatzi, abozkora mugatu gara; izan ere, merkataritza-bezero harremanean, batez ere, abozko komunikazioa izaten delako nagusi".*

Aurrez euskara ikasten jardundako batzuek izan dituzte "arazotxoak", baina nahiago izan dute Bergarakoa ikastea. *"Lehen klaseak emanda zituztenez aditzen kontua oso sartuta dute: 'zebe' 'zuten' da? eta era horretako galderak egin dituzte, baina ez da inolako otoporik izan".*

**Udal euskaltegian merkataritza ikastaroa**

Merkataritza ikastaroan hiru talde ibili dira, bakoitza 30 ordukoa, eta astean behin ordu t'erdiz elkartu dira. Batzuk erraztasun haundiagoa, beste batzuk txikiagoa, baina denak euskaldun zaharrak ziren, eta batez ere fakturak eta taloiak nola egin, zenbakiak, oharrak, eskaerak, albaranak, kexak, orduak, hiztegia... landu dituzte. Miriam Garate irakaslearen arabera, ikastaroak eman ditu fruituak: *"kontzientziatuago daude, eta euren jarreran nabaritzen da, bai klasean,*

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**AGIRREBEÑA**  
oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria  
Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

**LAZKANO**  
Oinetakoak  
Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03




*bai kanpoan: lehen euskaraz sekula ez edo oso gutxitan berba egiten zutenak, orain euskaraz egiten saiatzen dira. Eta lehen gazteleraz idazten zuten merkatari zenbaitek fakturak, kartelak, eta horrelakoak orain euskaraz idazteko joera hartu du".*

### Balorazio positiboa

Estepan Plazaola Udaleko euskara dinamizatzaileak adierazi digunez esperientzia positiboa izan da. "Itzulpen zerbitzuaren eskaintzak erantzun kaxkarra izan du, baina ikastaroei dagokienez, proportzioan jenderik gehien apuntatu den herria izan da. Ageriko elementuak euskaraz jartzeko konpromezua (merkealdia, kartelak

*euskaraz, e.a.) 100 dendatan hartu zen, eta euskarazko barreman sarea sortzeko prest 48 azaldu ziren".*

Aurtengo emaitzak ikusita datorren urtean jarraipena egiteko asmoa dago (besteak beste, ikastaro gehiago izango da), izan ere, Siadecoren esanetan Euskara merkatal mundura ez da kanpaina bat, egitasmoa baizik. "Egitasmoaren arrakastaren klabea jarraipena da, urratsez urrats egoera hobetzeko eta une bakoitzean egon daitezkeen aukera berriez baliatzeke". Estepanek dioenez aurtengo esperientzia hasiera besterik ez da izan. "Helburua urtez urteko programa egitea da. Datorren urtean beste herri batzuk ere sartzekoak dira eta horrek Gipuzkoa mailako plan integral



Euskalduntze ikastarokoek bezero-dendari harremanak Bergarako euskaraz landu dituzte.

*bat abian jartzeko aukera emango digu. Herri mailan lan egiteak muga haundiak ditu. Merkataritzan gero eta lotura handiagoa dago herri*

*desberdinetako dendean, kateak eta elkar-teak direla eta. Beraz, gutxienez, Gipuzkoa mailan egin behar da lan".*

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologien unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

**Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura**

**Doktoreak:**  
**CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ**



**Zerkaosteta, 17 etxabea ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18**




## Eguzkia hartzeko ohiturarik badaukazu? Solarium batean egon zara inoiz?




**Karmele Bizarro**

Egia esan, ez zait asko gustatzen. Agobiatu egiten naiz, nahiago dut ibiltzerakoan eguzkia hartzea. Ez, ez naiz sekula solarium batean egon.



**Pello Andrinua**

Ez, segituan erretzen naiz gainera. Normalean oso gutxi egoten naiz eta egoten banaiz goizean goiz eta arratsaldean berandu. Ez naiz solarium batera inoiz joan.



**Mario Gonzalez**

Bai, asko gustatzen zait eguzkia hartzea. Saturraranera baldin banao 6-7 orduz egoten naiz. Solariuma, berriz, ez zait gustatzen.



**Francisco Roque**

Bai. Udan Torrevieja joaten gara eta pasiatzerakoan gustatzen zait eguzkia hartzea. Solariumean? Ez naiz egon, ez.



**Maria Teresa Aperribai**

Asko gustatzen zait, balkoian hartzeko ohitura daukat, lanak egiten ditudan bitartean. Solariumean ez naiz egon.



**Mari Jose Molina**

Plaian hartzeko ohitura daukat baina denbora gutxian egoten naiz, orduerdi bat. Gehiegi ez zait gustatzen. Solariumera joateko denborarik ez daukat.

LEHEN URTEA = % 7  
BIGARRENA = MIBORRA + 1  
HASIERAKO KOMISIOA = 0

# EKARRI ZURE HIPOTEKA



## BANKINTER

Ibargarai, 2 BERGARA  
☎ 76 58 44 / 76 58 45

**Bezero  
partikularrentzako  
bulegoa**






## Suzko-erroberak

Eguastena 5, egunkaria irakurtzen: "Ariane V.a leherra-razi egin zuten atzo injineruek 66 segudu airean pasa ondoren". Hasierako erreakzioa irrifartxoa, akatsik gabeko gizarte perfektu honetan hori izaten baita gizaseme arruntoki tamaina honetako hankasartzeek sortzen digutena. Irakurtzen jarraitu eta: "Europar Agentzia Espazialak dioenez, galerak billoi bat pezetakoak izan daitezke". Ikara batek barrena zeharkatzen didan bitartean, berriz irakurri, eta bai, bai, billoi bat "b"kin. Zer izango ote da diru kopuru hori... kaleko jendearen neurria beste bat da, alegia: mila pe-la, ahal bada beti patrikan. Hamar mila, afari ederra eta tragoxka batzuk. Ehun mila, soldataz ari gara. Milioia, lanean denbora mordo bat egin ondoren gurasoek aurreratutakoa. Hamar milioi, pisu berria erosterakoan kutxa edo banketxeek gaineratzen diguten bizitzaren heren baterako kondena. Hortik gora "ciencia ficcion".

Ba momentu batean, minutu eskas batean gure etorkizuna planifikatzen duten buru argiek, horietako 100.000 kondena batera suziri bihurtu zituzten. Europar bakoitzari, bai Bergarakoari, bai Berlinekoari, gutxi gora behera 1.700 pezeta desagertarazi zizkiguten Guyanako suzko-errobera hartan.

Nire hausnarketa hauxe da, gizonaren etorkizunerako ez ote da hobe diru kopuru hori, adibidez, Guyanarekin berarekin muga egiten duen Brasilgo oihanean inbertitzea, munduaren birikiak garbi gordetzeko edota hainbat herriren goseak asetzeko, edota..., edota...? Eta hau guztia progresuaren aurka egotea bada, bost axola, ni aurka nago.

**Roberto IZAGIRRE**



## Hotzez dagoenari...

Egurra. Real Madrid B taldeko partaide guztiei, Almeriaren eskaintza onartu eta partidua ez irabazteko ahaleginak egitearren. Ez dute ba gero nahi adina diru irabaziko! Sestaok galdu zuen gainera kategorija.

Egurra. Mairuaren alardea domekara aldatu nahi dutenei. Herritarrok geuretako bereziki gorde ohi dugun arratsaldera? Nire partetik gudari bat gutxiago aurten.

Egurra Haziendakoei. Errenta aitortpena beti bezala txintxo-txintxo egin, eta eman didaten belarrondokoagatik. Halako lapur kuadrila!

Egurra. Legea den bezala onartu eta bete beharrean, presoan gaia, presoak eurak eta familiak ondorioz, txantaila eta marginaziorako erabiltzen dutenei.

Egurra. Eguraldi igarleei. Izan ere, hego haizea sartzen denean ez dute bat bera asmatzen. Kasu egiozue eta ikusiko duzue a ze nolako erriidikuluak egiten dituzuen.

Egurra. Itoiz bezalako obra ilegal historiko bat legal bihurtzeko azpilanean dabilzan guztiei. Tragaperrak, fondo erretserbatuak, Filesak... hemendik urte batzutura txiki geratuko dira Itoizen dauden interes denak jakinarazten direnean.

Egurra. Sasoi honetan, ordu sargoritsuenean azterketak sasi-zuzendu eta ia arrazoi barik ikasleak suspenditzen dituzten irakasleei. Baita dena azken ordurako uzten duten ikasleentzat ere. Egurra...

Jesus Beñar! Agresibo samar etorri haiz gaurkoan. Igartzen dok astelehenetik zigarrorik ez duala piztu. Eutsiok horri!

**Beñardo KORTABARRIA**

# INGELES FRANTSES ALEMANA

## UDAKO IKASTARO TRINKOAK

• **NOIZ:** Ekainaren 24tik uztailearen 12ra.

• GOIZ ETA ARRATSALDF7

• ADIN GUZTIAK:

- Haurrak

- Gazteak

- Helduak

• 3 EDO 4 ORDU:

**INFORMAZIOA:**

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87



## MATRIKULA ZABALIK!!



■ **Egunkaria jaiian**

Igandean Donostian izandako Egunkaria Jaiian **BERRIGARAK** ere hartu zuen parte. **Euskal prentsaren eguna** ospatzeko, **Euskaldunon Egunkariak** eta Euskal Herriko hainbat aldizkarik euren produktuak erakutsi zituzten Saguesen. Bertan, Berrigarak bere jaiotzatik hona izandako bilakaera azaldu zuen, portada ikusgarrienen bitartez. Era berean urtekariak, ale bereziak, gidak eta beste hainbat produktu ikusteko aukera izan zuen jendeak. Inpresio ona atera zuten Berrigarako standera hurbildu zirenek eta banatu ziren biserek ere izugarrizko arrakasta izan zuten, gaztetxoen artean batez ere.




■ **Errioxako bodega batean**

**Bergara K.E. ko preferente eta errejional mailako futbol taldeek**, denboraldiari amaiera emateko, **Villabuenara**, Errioxara, irteera egin zuten ekainaren 1ean. Gure futbolariak primeran pasatu zuten eta Marin anaien bodegan errioxar ardoaren kalitatea dastatu ahal izan zuten. Ondo edan, primeran bazkaldu eta juergagiroya nagusi. Hurrengo denboraldirako indarrak hartzen hasi ote?



■ **Bedelkarren zozketa**

Joan zen astean Bedelkar eta Beart herriko dendari eta artisten elkarteek antolatutako zozketaren sari banaketa egin zen. **Mari Sol Gil** genuen saritutako boletoaren jabea eta Mari Solek **Onena tindategian** ikusgai zegoen **Luis Laskurainen koadroa** aukeratu zuen. Saritutako boletoa (5.867 zenbakia) **Yoar zapatadendan** eskuratu zuen irabazleak. Argazkian, ezkerretik eskumara, **Angelines Tartas** Yoar zapatadendakoa, **Mari Sol Gil** eta **Elsa Rodriguez** Bearteko presidentea.



**Gaspar**

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A**

Barrenkale, 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

**BENITO**

• Zoruak leundu eta barnizatzea

• Parketa jartzea

**PINKIAK**

☎ 76 33 80 BERGARA





■ A ze pieza!!

**Benildo Hernandez** arrantzale bergararrak Guinness errekorren liburuan agertzeko moduko olagarroa harrapatu zuen Zarautzen, Moiarriko haitzetan. Benildok eskuetan duen olagarroak 4,800 Kg. pisatzen zuen eta bi kazolatan egosi behar izan zuten.

■ Jaunartzeak Osintxun


Lehen jaunartzea egin zuten igandean herriko auzoetako neska-mutilek. Argazkian agertzen diren **Aitor, Iosu, Marlen, Nuria, Mari Luz eta Rebecak** Osintxuko parrokian egin zuten. Meza ostean, opari ederrak jaso zituzten eta ondoren, bazkari ederra izan zuten euren familiartekoenkin.



■ "Marron" Euskaltegian

**Ramon Agirre "Marron"** mendizaleak diapositiba emanaldia eskeini berri du Bergarako Udal Euskaltegian. Ataundarrak lau muntaia erakutsi zizkien euskaltegiko ikasle eta irakasleei. Afrika, Antartida, Indonesia edo Alaskako lekuak eta herrialde bakoitzeko xehetasunak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten.

**Zertan dihardute ba?**



**Mikel Herzog**

35 urteko bergararrak, gaur hasiko den Benidormeko kantu festibalaren 29. edizioan parte hartuko du. Lehiaketara aurkeztu diren seirehun abestietatik, azken fasean parte hartuko duten 24 onenen artean aukeratu dute Mikel Herzogena. Azken urteetan Madrilen bizi eta lan egin duen kantariak, Sigris eta Nekez taldeetan eman zituen lehen urratsak. Ondoren, Ebano, La Decada Prodigiosa edota Cadillac taldeetan aritu zen. Azkenaldian bakarka dabil eta aurten Bergarako frontoian ikusi ahal izan dugu.



**ARGI PLASTIC**

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik



Erakusketak: Masterreka 14, behea BERGARA  
Tfnua: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

**AR DATZA**

*Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93


- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarraillak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak



# Mariano de Benito

**Mariano de Benitok masajeen bidez bihurrituak, zerbikalak, artrosia, e.a. sendatzen ditu. Inguru honetako belarrekin egindako ukendu eta infusioekin, berriz, infezioak, ezemak eta beste hamaika gaitz kentzen ditu. 32 urtean bere jaioterrira, Segoviara, joateke egon arren, orain aukera duen guztian joaten da.**

- Kuranderoa, masajista, sasimedikua... zer zara?
- Masajista, sasimedikua... denetarik deitzen didate.
- Noiztik jendea sendatzen?
- Betidanik.
- Nondik datorkizu zaletasuna?
- Aitita-amamengandik; eurek erakutsi zidaten eta nik jarraitu egin dut.
- Sekretu asko dakizu?
- Liburu bat idazteko adina errezeta dut, baina ez dira sekretuak.
- Mediku izatea gustatuko litzaizuke?
- Duda barik, baina ez dut ikasteko aukerarik izan.
- Orain oso modan dago medikuntza alternatiboa.
- Medikuntza tradizionalak botikien bidez gaisotasun asko sortzen



*"Prohibido casarse a los 60 pelikula askotan ikusi dut. Urtetan izan naiz barazkijale, baina orain hilean behin jaten dut okela. Tentsioa erregulatzeko pastilla bat egunero hartu arren, nik prestatutako infusioa ere edaten dut"*

dituelako.

- **Non batzen dituzu belarrak?**
- Inguru honetako mendietan, Nafarroan, Segovian... Hemen oso onak eta asko ditugu, baina jendeak ez ditu ezagutzen, ez erabiltzen.
- **Zer sendatzeak eman dizu pozik handiena?**
- Hanka moztu behar zioten bat sendatu nuen, ultzera asko sendatu ditut...
- **Masaia ondo eman behar da?**
- Bai, bestela arriskutsua da. Nik pertsona kamillan etzandakoan asmatzen dut zer duen.
- **Belarrekin ere kontuz ibili behar da.**
- Ondo ezagutu ezean eta dosi egokian hartu ezean pozointsuak izan daitezke.
- **Gehien erabiltzen duzun landarea?**
- Elorri zuria, paretaria, berbena belarra... segun zertarako den.
- **Haragirik jaten duzu?**
- Urtetan izan naiz barazkijale, baina orain hilean behin edo jaten dut haragia.
- **Osasuna, lana ala dirua?**
- Lehenengo osasuna, gero dirua eta hirugarren lana.
- **Akats bat?**
- Genio txarra.
- **Birritan ikusi duzun pelikula?**
- Paco Martinez Sorriaren Prohibido casarse a los 60.
- **Noiz idatzi duzu azken karta?**
- Soldaduzkan.



## ESKORIATZAKO MAGISTERIO ESKOLA

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela.**

Espezialitateak:

- HAUR HEZKUNTZA
- HEZKUNTZA BEREZIA
- ATZERRIKO HIZKUNTZA: INGELESA

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA. ☎ (943) 71 41 57. ESKORIATZA.

**ARREGUI, E.M.**



**AROSZTEGIA**

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
  - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
  - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38



**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Bergaran.  
☎ 76 39 64.

**Pisua** salgai Osintxun.  
Erdi amueblatuta, argitsua.  
☎ 76 17 27/55 98 (gauzez).

**Pisua** salgai Koldo Eleizal-  
den. ☎ 76 09 37.

**Pisua** salgai Bidekurutze-  
tan. ☎ 76 43 22/56 07.

**Pisua** salgai Barrenkalean.  
Berriztuta. ☎ 78 70 30.

**Pisua** salgai Bolun. 100  
m2. ☎ 76 22 72.

**Pisua** salgai Antzuolan.  
☎ 76 25 32.

**Estudioa** alokatzen dut  
Benidormen. ☎ 76 23 43.

Berriztutako **ganbara** San  
Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

**Garajea** salgai San Loren-  
tzon. ☎ 76 58 28.

**Garajea** salgai Boni Las-  
kurainen. ☎ 76 47 67.

**Pisua** salgai Frontoian.  
160 m2. ☎ 76 24 42.

**Pisua** salgai Frontoian.  
☎ 76 51 73.

**Garajea** salgai Zurrade-  
ron. ☎ 76 02 89.

**Pisua** salgai Mugertzan.  
☎ 76 53 79.

**DENETARIK**

**Kotxe silla** salgai.  
☎ 76 58 84.

**Denda-remolkea** salgai.  
☎ 76 37 82.

**Otsein** labadora salgai.  
☎ 908 67 09 10 (Markos).

2. eskuko **Mobylettea**  
erosiko nuke. ☎ 76 15 81.

**Imar** denda-remolkea sal-  
gai. ☎ 76 58 62 (gauzez).

**Imar** karro denda salgai.  
☎ 76 59 56 (gauzez).

**Umearen** urrezko katea  
eta medalla galdu ditut.  
☎ 76 29 21/76 08 89.

**Trialsineko** Monty bizi-  
kleta salgai. Egoera onean.  
☎ 76 56 13.

**Graduatutako** betaurre-  
koak galdu zaizkit (fundare-  
kin). ☎ 76 43 37.

**Segamegadrive** konsola  
salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

**Nissan** Vanette (SS-AK)  
salgai. ☎ 21 18 55.

**Mendiko bizikleta** sal-  
gai. ☎ 76 51 55.

**Sofa** bat salgai. 30.000 pe-  
zeta. ☎ 76 64 71.

**Belarritako bat** (bola  
urdirin bat) galdu zait.  
☎ 76 64 71.

**Karakol** eskilara salgai.  
☎ 76 14 84.

**Mastin** txakurkumea sal-  
gai. ☎ 76 54 26.

**Ford Sierra** kotxea (SS-  
AD) salgai. ☎ 76 33 10.

**Neoprenozko** ziklista  
txaketa salgai. M neurri-  
koa. ☎ 76 52 31.

**LANA**

**OHO** eta ingeles klaseak.  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ingeles** klaseak.  
☎ 76 40 89 (Gemma).

**Etxeko lanak** egiten di-  
ra. ☎ 76 01 99.

**Ingeles** klaseak ematen  
ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Klase** partikularrak ema-  
ten ditut. ☎ 76 04 65.

**Klase** partikularrak  
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

**Haurrak** zainduko nituz-  
ke. ☎ 76 18 75.

**OHO** klaseak ematen di-  
tut. ☎ 76 24 42 (Amaia).

**Haurrak** zaindu eta e-  
txeko lanak egingo nituzke.  
☎ 76 21 96 (Mertxe).

**Pintura** klaseak emango  
ditut uztailen.  
☎ 76 44 17 (Usoa).

**Etxeko** lanak egin eta  
haur bat zaintzeko neska  
euskalduna behar da.  
☎ 76 06 69.

**BBB**, UBI eta unibertsita-  
te mailako klase partikula-  
rrak ematen dira.  
☎ 76 35 37.

**Emakume** euskalduna  
behar da haurrak zaindu  
eta etxeko lanak egiteko  
(arratsalde). ☎ 76 30 37.

**Zaharrak** zainduko ni-  
tuzke. ☎ 76 11 11.

**POL-POL**

Taberna

☎ 76 07 78

**FRANTSES IRAKASKUNTZA**

MIZPILDI 3, 1. EZKERRA. BERGARA

**IKASTARO TRINKOAK**  
Uztailaren 1etik 19ra

Izen-ematea: Ekainaren 28ra arte.

Informazio gehiago: 76 30 55

Ordutegia: 10:00-12:00 eta 17:00-19:00





# BONOFOTOA



## Jose Luis Amutxastegi

**Jose Luis Amutxastegi** eraman du aste honetan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galderak berak asmatu baititu. Argazkian agertzen zen armarrri dotorea zein etxearen alboaldean aurkitzen den, eta zein kaletatik ikus daitekeen galdetzen genizuen, eta erantzun zuzena **Olaso Dorrearen alboaldean eta Komenio kaletik** zen. Aste honetako 10.000 pezetak **Jose Luis Amutxastegiri** eman dizkiogu. Zorionak!!

**Zein da urrutira ikus dezakegun XVI. mendeko ermita horren izena eta zein auzotan dago?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara



## Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol Txapelketa

### EMAITZAK

XURRUPAK-MATXAKATEGI	1-0
ALTOS PORNOS-ARLOTEAK/OILAGORRA	2-2
EZINLEIKE-PAOK	3-2
FACUTA-BILDURBAREK OPEL/LAM	0-2
MONGATXURRAK-A ZE FLAXA	1-1
PATXARAN TEAM-LA JUVE	1-7
AMILOTX-SHAKTALE	1-0
GUADALEST-ANGIOZAR	0-3
PAOK-FACUTA	0-4
ARLOTEAK/OILAGORRA-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-1

### PARTIDUAK

#### Ostirala 14

19:15: ANGIOZAR-MONGATXURRAK  
20:30: SHAKTALE-GUADALEST

#### Astelehena 17

19:15: LA JUVE-AMILOTX  
20:30: A ZE FLAXA-PATXARAN TEAM

#### Asteartea 18

19:15: EZINLEIKE-ALTOS PORNOS  
20:30: XURRUPAK-ARLOTEAK/OILAGORRA

#### Asteazkena 19

19:15: FACUTA-MATXAKATEGI  
20:30: BILDURBAREK OPEL/LAM-PAOK

#### Osteguna 20

19:15: MONGATXURRAK-PATXARAN TEAM  
20:30: AMILOTX-A ZE FLAXA




### SAILKAPENAK

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	MONGATXURRAK	7	3	12	1
2.	ANGIOZAR	7	3	8	2
3.	AMILOTX	7	3	6	2
4.	LA JUVE	6	3	9	8
5.	A ZE FLAXA	4	3	7	5
6.	SHAKTALE	3	3	9	7
7.	GUADALEST	0	3	1	12
8.	PATXARAN TEAM	0	3	3	18

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	BILDURBAREN OPEL/LAM	7	3	7	2
2.	XURRUPAK	6	2	3	0
3.	ARLOTEAK	5	3	6	3
4.	FACUTA	3	3	4	5
5.	MATXAKATEGI	3	2	1	1
6.	EZINLEIKE	3	2	4	6
7.	ALTOS PORNOS	1	2	2	3
8.	PAOK	0	3	2	9

### JOKOZ KANPO



IBAI ELORZA  
ANGIOZAR

### Ze moduz orain arte jokaturako partiduetan?

Ederki, bi irabazi ditugu eta beste bat berdindu. Amilotxen aurka galtzea espero genuen, baina berdinketa lortu genuen. Beste bi partidua nahiko errez irabazi ditugu.

### Zenbat gol sartu dituzu?

4 sartu ditut eta 3 apuntatu dizkidate.

### Golak sartzeko sekretua?

Hor aurrean atento egotea.

### Txikia izanda egur haundia ematen dizute?

Ez, txikia naiz baina aguro eta zuhur ibiltzen naiz...

### Jokatu duzun partidurik onena?

Amilotxen aurka, nahiko partidu gogorra izan baitzen.

### Zer egingo du Angiozarrek txapelketan?

Laugarren edo 3. izatea espero dut. **Taldeko gazteena izanda mimatuena al zara?**

Ez, alderantziz. Bronka gehien jasotzen duena naiz.

### Txapelketa irabazteko ze talde da faboritua?

Mongatxurra eta A Ze Flaxa asko gustatu zaizkit.

### Gustora, izan dituzuen arbitraiekin?

Epailleek ez dute asko arbitratzen, baina behintzat saiatzen dira.

### Zenbat gol sartuko dituzu?

10 gol sartzea espero dut.

### GOLEGILEAK

#### 4 gol

Xabier Zangitu. Mongatxurra.  
Ibai Elorza. Angiozar.

#### 3 gol

Iban Etxeberria. Mongatxurra.  
Pako Vallejo. A Ze Flaxa.  
Marcos Alonso. Amilotx.  
Iñaki Arrieta. Bildurbarek Opel/Lam.  
Gorka Ayestaran. La Juve.  
Iban Blanco. La Juve.

## Nesken futbito txapelketa

### EMAITZAK

POTZU TA ZAPABURUAK-BOST TABERNA	2-1
POWER RANGERS-BLUE STARS	2-1
GU GEU-BOKAGE	3-0

### PARTIDUAK

#### LARUNBATEAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

11:00: BOST TABERNA-BLUE STARS  
16:00: POTZU TA ZAPABURUAK-GU GEU  
17:00: BOKAGE-POWER RANGERS

### TALDEAK



**Gu geu** taldea Eider Ugalde, Nerea Lete, Onintza Egaña, Nerea Azkarate, Giomar Fernandez, Olatz Olaso, Leire Lizarralde, Arantzazu Kortabarria eta Amaia Zabaletak osatzen dute. Azkenengo txapelketan 4. geratu ziren. Fitxaketa berriak egin dituzte.

## Labegaraietako Kopa Txapelketa

### PARTIDUAK

#### LARUNBATEAN BARRUAN

11:00: ERI-A ZE FLAXA • LA JUVE  
12:00: LA JUVE-NEKROFILIKOS • ERI  
13:00: ARLOTEAK-OGIZUN • NEKROFILIKOS  
16:00: ORTZI-ERROTAGAIN • BAR CANALEJAS  
17:00: BAR CANALEJAS-MONGATXURRAK • ORTZI  
18:00: PAGOMENDI-FAC • MONGATXURRAK

#### IGANDEAN BARRUAN

10:00: ORTZI/ERROTAGAIN-PAGOMENDI/FAC  
11:00: ARI ARI/BILDURBAREK-MADURA  
12:00: ARLOTEAK/OGIZUN-PATA NEGRA  
16:00: CANALEJAS/MONGATXURRA-ERI/A ZE FLAXA  
17:00: OZAETA-ETXAGI

### OHARRA

BILDURBAREK OPEL/LAM ETA ARI ARIK PENALTIAK JAURTI BEHARKO DITUZTE NOR SAILKATZEN DEN ERABAKITZEKO. ZAPATUAN PRORROGA JOKATU ZUTEN, ZUZENEAN PENALTIAK JAURTI BEHARREAN.





**Igerilariak bikain**

Larunbatean Agorrosingo igerilekuetan jokatu zen Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan Eneritz Muguruzak urrezko eta zilarrezko domina bana lortu zituen; Anton Maiztegi, berriz, urrezko, zilarrezko eta brontzezkoak. Erreleboko nesken taldeak 4x100 krolean brontzezko domina eskuratu zuen. Astebukaeran, Iruñean jokatu diren Euskadiko txapelketan Antxon Maiztegi, Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur eta Eli Alberdi izango dira.



**Gimnastak Espainiako txapelketara**

Ariznoa Gimnasia Erritmikoko alebin taldea, Euskadiko Eskolarteko txapelkun geratu ondoren, gaurtik ekainaren 22ra arte Palma de Mallorcan jokatu diren Espainiako txapelketan izango da Aranzadi Ikastola ordezkaturik. Taldea Alba Maestre, Amaia Torre, Ane Miren Fernandez, Aintzane Narvaez, Jaione Igartua eta Elisabet Agirrek osatzen dute.

**Jubilatuak Olinpiadak**

Deba Garaiko 250 jubilatutako inguru elkartu ziren joan zen ostiralean kiroldegian jokatuak 3. Adinekoentzako Olinpiadan. 2 ordu inguru eman zituzten hainbat kirol egiten eta egin zuen beroarekin izerdia majo bota ondoren, oraindik gogoazuenarentzat dantzaldia izan zen. Asteburuan Deba Garaiko Kirol Zerbitzuek antolatuta gutxitu fisikoentzako Olinpiadak izango dira.



**Denboraldiari agur**

BKEko zuzendaritzako taldeak 4 eta 1 irabazi zion Emakumezkoen taldeari joan zen larunbatean jokatuak partiduan. Zuzendaritzako golak Piti Unamuno, Roberto Nieto, Xabier Lijo eta Juanjo Arizmendik sartu zituzten. Nesken taldekoena, oster, Jasone Larrañagak.

**Ohorezko mailara**

BKEko lehen mailako kadete taldeak bukaera bikaina eman zion denboraldiari, joan zen zapatuan ohorezko mailara igotzea lortu baitzuen Eibar taldearekin bina berdindu ondoren. Bergaran jokatuak joaneko partiduan bana berdindu zuten. Datorren urtean Gipuzkoako talde onenen artean jokatzeko aukera izango dute. Zorionak!



Fernando Oregirenek Gipuzkoako futbolari kadete onenekin ariutako dira.



## TXINPARTAK

## Igoitz Gabilondo irabazle

Lokatza-Sumofic taldeko txirrindulari infantilak garaipena lortu zuen joan zen asteburuan Azkoitin. Igoitz Gabilondo denboraldi bikaina egiten ari da, Etxarri Aranazen jokaturako Euskal Herriko Eskolarteko txapelketan 2. postua lortu baitzuen. Bestalde, Lokatzako infantilak 3. sailkatu ziren Gipuzkoako erlojupeko taldekako txapelketan.

## Frontenis Txapelketako finalerdiak

Larunbatean jokaturako dira Zabalotegiko frontoian Frontenis Txapelketako finalerdiak. 11:00etan, Xabier Albiñak eta Carmelo Barcalak neurtuko dituzte indarrak; 12:00etan, berriz, Jose Caballerok, Mikel Ramajoren aurka jokaturako du. Finala datorren larunbatean jokaturako da.

## Pol-Polen mendi irteera

Pol-Poleko gazte taldeak mendi irteera antolatuko du datorren iganderako, hilak 23. Hiru Aitzetako Begietara joango dira Pol-Poleko gazteak. Izena ematea, asteleheneetik ostegunera arratsaldeko 7etatik 8:30etara, Pol-Poleko bulegoetan.

# A. De la Riverette

## Karatean eta snowboardean

**Aitor De la Riverettek 16 urte ditu eta dago-neko karatean gerriko beltza lortu du. 10 urte daramatza karatean eta horretaz gain, snowboardean ere ibiltzen da. Azken kirol honetan Estatuko txapelketan 9. postuan bukatu zuen.**

- Zenbat gerriko pasa behar izan dituzu beltza ateratzeko?

- 11 gerriko beltzera heldu arte eta hori atera ondoren Damak daude. Gerriko batetik bestera pasatzeko azterketa batzuk egin behar dituzu. Beltza baino lehen gimnasioan egiten dugu azterketa, baina beltza lortzeko Bergaratik kanpora joan behar da. Lehenengo aldiz, Irunen suspenditu egin nuen eta Gasteizen aprobata egin nuen.

- Zelakoa da gerriko beltza ateratzeko azterketa?

- Lehenengo norberak egindako 5 kata egiten ditugu eta horiek egin ondoren, epaimahaikoez beste batzuk agintzen dituzte. Halere, 16 urte baino nagusiagoa bazara 3 borroka egin behar dituzu gerriko beltzaren atzetik dabilzan beste karateken aurka eta gerrikoa lortzeko bi borroka irabazi behar dituzu.

- Karate lehiaketetan parte hartzen duzu?

- Ez, joan zen urtean Hondarribin izan nintzen eta 3. amaitu nuen. Bestela ez dut lehiaketetan

parte hartzen. Lehiaketak gimnasioan egiten ditugu, baina denok elkar ezagutzen dugu eta ez da arazorik izaten.

- Zer moduz snowboardean?

- Hasieran nahiko gaizki, baina gero Espainiako txapelketara joan nintzen eta gigantean 9. postua lortu nuen nagusi-en mailan. Oso gustora gelditu nintzen.

- Snowboarda ala karatea?

- Biak gustatzen zaizkit. Oso kirol desberdinak dira, bakoitzak bere gauza onak ditu.

- Zaila izango da snowboardeko zirkuito osoa egitea?

- Bai, dirua behar da lasterketetara joateko. Euskadiko federazioak laguntza batzuk ematen ditu eta ea datorren urtean laguntzatxoren bat ematen didaten. Urtean 5 edo 6 proba daude, baina bata Sierra Nevada da eta bestea Baqueiran eta guztietara joateko diru asko behar da.

- Beste kirolen bat egiten al duzu?

- Danetik pixka bat, astebukaerero frontoian ibiltzen gara. Mendira joatea ere gustatzen zait eta Pazkuetan Anetora igo ginen trabesiako eski-ekin. Futbola, eskubaloia eta horrelakoak ez zaizkit gustatzen.



Aitor De la Riverette gerriko beltza da karatean.

## "Futbola, eskubaloia eta horrelakoak ez zaizkit gustatzen"





## San Antonio jaiak

**S**an Antonioko jaiak ospatuko dira astebukaera honetan eta hori dela eta, aintzinako hiru argazki ekarri ditugu txoko honetara aste honetan.

**Goiko argazkian ezkerrean,** 1972an egindako boxeo txapelketa-kopartaideak ikus ditzakezue. Ezkerretik eskumara, Adrian Arreseigor, Jose Dobao, Cristina Gomez, Rafa Dobao eta Martin Juaristi.

**Eskumako goiko argazkian,** berriz, 1975an jaiak alaitu zituen txarangako kideak hauek dituzue:

Aurrean: Jabier Izarbe, Elgetako soinujolea eta Juan Luis Bikuña.

Atzerago: Donato Agirrebeña, Genaro Manso, Jorge Izarbe eta Ino Muniategi.

**Azkenik, beheko argazkian** auzoko koadrila bat agertzen da 1978 urte inguruko jaietan. Horra hor



zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Atzean: Alfonso Burgos, Francisco Luis Gutierrez, Jose Antonio Fernandez, Jose Dobao eta Manolo Dobao.

Jarrita: Andres Garcia, Bartolome Carrascosa, Javier Roige, Aitor Lazkano, Javi Fernandez, Paco Luque, Rafa Dobao, Rafa Otera, Carlos, Iñaki Lazkano eta Manuel Sanz.

Aurrean agertzen diren hirurak: Manuel Fernandez, Angel Cantero eta Jose Tena.

**ZUBIETA**  
elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

**umelaga**  
JATETXEA

IGANDETAN  
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!




Kanpaina berezia

**Heldu da!!**

# Autoverano 10



Azterketa teknikoak  
Doako diagnostia



Autoverano "10"  
beherapen berezia



Errepide-mapa  
doan

**ONGI ETORRI!!**

**Orain abantaila gehiago kotxearen  
aseguruan. %10eko DESKONTUA  
POLIZA BERRIA EGITERAKOAN.**



**Ez aukerarik  
galdu. Balia  
zaitez  
liderraren  
abantailaz!!**



**MAPFRE**  
MUTUALIDAD

Simon Arrieta, 3 BERGARA ☎ 76 28 79 / 76 18 80

**Ekintzak,  
eta ez  
berbak!!**

**Automobilen aseguruak  
OHAR GARRANTZITSUA  
EZ DITUGU PREZIOAK IGO!!**



# ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Artekale, 22 ☎ 76 16 63  
BERGARA

Santa Ana ☎ 74 10 11  
ELGOIBAR



# Laster zuekin!

# Sofa leku



*a. eme. interiores, Garibai, 9*  
*centro hogar muebles, Zigarrola, 1*  
*sofa-leku, Zigarrola, 1*  
Tfnoak: 79 15 03 - 77 14 92

**grupo**



**Amuebladora  
Mondragonesa**